



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2005eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

HKEEren iritzira, Unibertsitateak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; salbuespen dira, ordea, langileen eta aurrekontuaren kudeaketari buruzko hainbat jokamolde ez ezik, obra eta zerbitzuen kontratazio prozesuari buruzko beste hainbat ere.

Aurrekontuari dagokionez, Epaitegiak azpimarratu du aurrekontuan 3,2 milioi euroko diru-izendapena falta dela, geroko ekitaldietarako konpromisoei dagozkienak; halaber, aurrekontuan hainbat aldaketa gauzatu dira, horretarako eskumena duen atalak onetsi gabe. Langileriarri dagokionez, EHAAn ez dira Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketak argitara eman.

Kontratazioari dagokionez, HKEEk hiru kontratu bereizi ditu, ez baitzaie legeriak agintzen duen publikitatea eman; berebat, beste 6 kontratutan, ez da legez ezarritako prozedura jarraitu.

EHUren Kontuei bagagozkie, Epaitegiak uste du egoki erakusten dutela aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa. Iritzi honek salbuespen bakarra baizik ez du izan, ibilgetuari buruzkoa bera, ez baititu ondasun eta eskubide guztiak besarkatu.

Halaber, Epaitegiak barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta berezko tituluen arloetan.

Gainera, finantzaren analisiak erakutsi digu hobekuntza nabarmena egin duela 2004ko ekitaldian Eraitza Arruntak, nagusiki Eusko Jaurlaritzarengandik jasotzen den urteko gastuaren finantzaketak % 12ko igoaldia izan duelako. 2005ean sarrera hauek % 5 egin zuten gora eta Eraitza Arruntak, berriz, % 3,6. Honela, bada, bilakaera honen ondorioz,



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eusko Jaurlaritzak 2005ean emandako 15,4 milioi euroko mailegu batekin batera, ekitaldi horretako gastu orokorretarako Geldikin erabilgarria positiboa izan da lehenbiziko aldiz azken ekitaldietan. Amaitzeko adierazi behar dugu, aipatutako maileguaren emakida EHUK Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin egindako akordio batean biltzen dela, finantzaketa eta ordainsari osagarriak ezartzeko molde egonkorra ezartzea helburu duena.